

## ERDI-AROKO EUSKAL ERRI-IZENEN IDAZKERA

(Karmel 1985-3'an Idatzitako  
artikuloaren jarralpena)

Beste batzuetan, euskal-izenak, erdarara itzultzen zituzten luma-gizon zaar aiek. Erdiaroko larrukietan, Bureba'ren sarreran dagoan PANCOVO erriari PONTECORVO deitzen zaio: ZUBI OKERRA. Gaurko PANCORVO itxuraz aldatutako PONTECORVO dan bezela, ez ote da PONTECORVO euskerazko OKERZUBI latzara bihurtua? Ez ezazula algara erreze-girik egin!..., OKERZUBI edo PONTECORVO'tik ez ain urruti, garai artako Araba'n, OKERRURI bat bai bait zan! OKER-URI=VILLA-CORVA? PONTE-CORVO=OKER-ZUBI

Kontuz ala ere, irakurle!: etimologiaren txulotik sartzea naikoa bait da ametsetan asteko!

Ala ta guztiz, czin aztu dezakegu, denbora aietan PONTECORVO'n, BUREBA osoan, eta baita OKA mendiaren egoaldeko zatitxo batzuetan ere euskeraz mintzatzen zala jendea. (OKA-MENDIAK, «Montes de Oca», Ibero edo Ebro ibaiera datozten urak Duero ibaiera dijoztenetatik bereizten dituzten mendiak dira. (Gaur Eskudo esaten zaion portua edo atea, mendi oiek-zear dijoa).

Askoz geroago ere, erdiaroa amaiturik aro-berria ondo asia

zegoanean ere, oraindik euskera galdu-berria zutelarik, euskotartzat zeukaten Bureba'ko jendeek beren burua; Araba'rekin alkarturik bizi ziran. Araba'ko Lege Zarra idatzi zanean, ordurarte agotik belarrira gordea izan zan Lege Zarra idatzi artan ondo jaso zegoan aztertzeke, ikerle-talde bat aukeratu zuten Batzar Orokorrean Araba'ko Batzarkideek. Araba'ko Lege Zarra ondoen ezagutzen zuten Batzarkidez osotutako taldea zan ura. Ba..., talde artakoak zenituan «los dos representantes de Miranda y su JVlerindad; los dos representantes de la Hermandad de la Bureba». (Ez dakit itzak ziur-ziur oiek ziran, buruz aipatzen bait ditut emen, baina ori da zentzua).

Oso geldi, astiro, urte luzeen zabalean il zala euskal-sena endaz euskotar eta gaur kulturaz espaniar diran gure inguruko jendeetan!

CLAVIJO.- Beste larruki batzuetan CLAVIIO edo CLAVIO. Orain, CLAVIJO, XVIII mendearen azkena ezker, «J» ipintzen bait dute gaztelarrek ordurarte «X» ipintzen zuten lekuetan. Leenagoko idazkietan gaztelaraz CLAVIXO ikusiko duzu beti.

Ez ote da au ere itxuraz aldatutako euskal-izen bat? Klabi-xo'ren atzizkia, IXO, «XO», anitz euskal-izenetan aurki daitekean atzizkia dugu: GARIXG, URKIXO, ARTAXO, ARRI-XO, eta abar. (Aiztintxe aipatutako «L» ta «R»n arteko aldagetak oroitzen ba'ditugu, ez ote zaigu zillegi KLABIXO ori KRABI-XO izan deitekeala pentsatzea? (Etimologi-jokuan asi geran ezker, izan «daiteken» gauza lez agertzen dedan ustea: ez bait dut irioiz idaztietan beinere KRABIXO'rik aurkitu)

KALAFORRA.- Orrela esaten dio gaurko Calahorra'ri. Erromatekoan, CALAGURRIS, euskotarren uririk nagusiena zan. Saia bitez etimologizaleak KALAGURRI izenak zer esan nai duan asmatzen. Ez dute noski ezer aundirik lortuko, baina ortan an diran bitartean euskeraganako zaletasuna aziko dute

beren baitan.

BARDULIA.- Izen au ez dago Erramir I'aren larrukian; baina «Erramir I'aren edestiarekin loturik dago. Erramir ori errege egina izan zanean «emaztea artzearren Barduli'ko Pro-bintzira joana zala» esaten digu «Chronicon Salmanticense»k: «Absens erat in Barduliensen provinciam ad accipiendam uxorem». «Paterna», zuan emazteki arek izen; eta, Erramir Fa bialdiz ezkondua ez ba'zan beintzat, Paterna Urraka».

«PATERNA» euskeraz «AITARENA», orduan emakumeek aski maiz erabilli oi zuten izena da. Urraka berriz, iez ote euskal-izena?

«Eun Neskaitilen Zerga» ezerezteko, diosku Erramir I'ak etorri zala Errioxa'ra mauril^arrak garaitu ta zanpatzera.

Badakizu noski asturiarrek, pakearen truke, urtero, beste aberastasun batzuekin batera, eun neskaitill mauritarrei ematera beartu zutela beren burua. Orixe duzu «El Tributo de las Cien Doncellas».

iEdesti (historia) edo kondaira (leyenda) ote da zerga ori? Gaur, edesti-idazle espaniarrek kondaira utsa dala diote. Baina ala ta guztiz egiazko edestia dalaren itsura aundia du. Zenbakia -«eun», edo «berreun» edo irurogei»- baleike kondaira utsezkoa izatea, baina mamia bera, asturiarrek neskaitil-sorta bat eman bear izatea, ori egia izanen da noski. Orrelako zergak Sortaldean ere eskatu oi bait zituztcn, arabitarrek aurrena eta turkitarrek gero. Ar dezagun gainera kontuan maometarrentzat emakumeak ezer aundirik ez dula balio. Gaur-egun oraindik, Saudi-  
•• Arabi'n, azoketako salgairik garrantzitsuena neskak dira: aitek saltzen dituzten neskak! Dirala amar urte edo irakurri nuan ori «Esprit» aldizkarian. Neska aien salneurria, 45'tik 85 milla peztara zan garai artan. Dirala bi-iru urte, urrutirratiz injenieru libanotar bateri entzun nionez, -dana garestitu bait da munduan-, jasoa

zan nesken salneurria era; 55'tik 95 millaraino balio zezakean neska bakoitzak.

Asturiarrek mauritarrei ordaindu bear zieten «eun neskatillen» zergaz badiosku Sanchez Albornoz'ek, inolaz ere kondaira utsezkoa dan gertakizun pitxi bat: Urte batean, Erregearen arreba gazte polita eskatu omen zuten, beste eunen artean, mauritarrek. Bildurik omen zegoen Erregea Batzarrean bere zaldun aundikienekin. jakin omen zuan printzesak zergaren parte lez bera ere katigu eskatua izan zala. Sartu omen zan asarre Batzarren erdira, eta gogor jaurti omen zien, anai erregeari eta zaldun aiei danei, gogor jaurti omen zien aurpegira beren koldarkeria. 'Zerga ura ordaintzera bearturik zeudela (esan omen zion zaldun aietako batek), pakearen truke bearkizun ura artu zuten ezkerro:

-Senora: Lo pide el honor de Leon. (Baita neskatillak azkar erantzun:)

\* .

-Caballeiros: Leon vos pide que defendais su honor con el ferro de vosas lanzas y no con el cono de vosas mulleres». (Bizkorra neska).

*LatiegVtar Bixente*